

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	AURPEGIKO ETA GORPUTZEKO FANTASIAZKO MAKILLAJE-TEKNIKEN APLIKAZIOA (zeharkakoa)	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF1229		
Lanbide-arloa	Irudi pertsonala		
Lanbide-eremua	Estetika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Makillaje integrala	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillajea (zeharkakoa)	Iraupena	120
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Bitarteko eszenikoetarako eta ikus-entzunezko produkzioetarako makillaje-tekniken aplikazioak (zeharkakoa)	Iraupena	70

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0066\_2 BITARTEKO ESZENIKOETARAKO ETA IKUS-ENTZUNEZKO PRODUKZIOETARAKO MAKILLATZEA gaitasun-ataleko LB6 eta LB1, LB2, LB3, LB4 eta LB7 lanbide-burutzapenekin, aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak aplikatzeari dagokionez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak higiene- eta segurtasun-kondizioetan aplikatzeko protokoloak definitzea.

EI1.1 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-protokoloen elementuak, egitura eta edukiak azaltzea.

EI1.2 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-protokolo normalizatueta azaldu behar duten funtsezko alderdiak eta prozedurak sekuentziatzeko modua zehaztea.

EI1.3 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajearen larruazala prestatzeko eta makillatzeko erabiltzen diren teknika, tresna, kosmetiko nahiz produktuak eta haien oinarri eta aplikazioak deskribatzea.

EI1.4 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-protokoloak prestatzeko kasu praktiko batean, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Protokoloak jaso behar dituen egitura, atalak eta abar aipatzea.
- Laneko protokoloa egiteko balioko duen oinarrizko dokumentua prestatzea.
- Makillaje-taldeko kideen jarduerak zehaztea eta tenporalizatzea.
- Fase bakoitzean erabiltzen diren teknikak eta produktuak zehaztea eta tenporalizatzea.

A2: Pertsonen ezaugarri fisikoak aztertzeke metodoak aplikatzea, eta aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajearen aplikatu beharreko zuzenketekin eta efektu optikekin erlazioztatzea.

EI2.1 Larruazal-moten ezaugarriak, makillatzeko kosmetikoen hautaketan eragina dutenak, deskribatzea.

EI2.2 Aurpegiaren eta aurpegieren desproporzio edo diskordantzia estetikoak zehazteko erreferentzia gisa hartu behar diren neurri erlatiboak azaltzea.

EI2.3 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak aplikatzean aurpegiaren eta aurpegi-atalen morfologiari egiten zaizkion zuzenketak identifikatzea eta deskribatzea.

EI2.4 Argilun-teknikaren bidez sakontasun handiagoko eta txikiagoko guneak aurpegiko nahiz gorputzeko zer zuzenketekin lortzen den azaltzea.

EI2.5 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak aplikatzeko aurpegia, aurpegierak eta gorputza aztertzeke kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela, zuzenketa argiak eta ilunak egin behar diren aurpegiko eta gorputzeko guneak eta elementuak identifikatzea.

EI2.6 Pertsonaren ezaugarri kromatikoak aztertzeke kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Larruazalaren kolorea eta larruazalak izan ditzakeen alterazio kromatikoak —gorriuneak, hiperkromiak eta abar— identifikatzea.
- Begien eta ilearen kolorea identifikatzea eta bero edo hotz gisa sailkatzea.
- Makillaje-kosmetikoen kolore-harmonia zehazteke irizpideak ezartzea.
- Datuak fitxa teknikoan idaztea.

A3: Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak bitartekoaren eta makillaje-estiloaren arabera eta higiene- eta desinfekzio-arau egokiak hartuz aplikatzeko beharrezko kosmetiko, material eta tresnak hautatzeko eta prestatzeko metodoak aplikatzea.

EI3.1 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajea aplikatzeko behar diren tresnak —pintzelak, belakiak, espatulak eta abar— identifikatzea.

EI3.2 Larruazala garbitzeko eta prestatzeko behar diren kosmetikoak identifikatzea.

EI3.3 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajea aplikatzeko behar diren kosmetiko-motak eta haien estaltzeko ahalmena azaltzea.

EI3.4 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak aplikatzeko beharrezko kosmetiko, tresna eta materialak hautatzeko jarraibideak deskribatzea.

EI3.5 Tresna, material eta osagarrien higie- eta desinfekzio-arauak azaltzea.

EI3.6 Tresnak eta materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta esterilizatzeko kasu praktiko batean, tratatu beharreko materialaren (pintzelak, belakiak, borlak eta abar) konposizioa ezagutzen dela:

- Material-multzo bakoitzean ohikoenak diren kutsatzaila-motak azaltzea.
- Material-mota bakoitzerako desinfekzio- eta esterilizazio-metodo egokiena hautatzea.
- Zer tresna eta material garbitu, desinfektatu edo esterilizatu behar den arrazoiak emanez azaltzea.

EI3.7 Makillajeak, ezpain-margoak, begietako arkatzak eta betile-maskarak infekziorik ez transmititzeko nola manipulatu behar diren zehaztea.

A4: Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak aplikatzeko marrazketa-teknikak erabiltzea, kosmetikoak eta bestelako materiala erabiliz, proposatutako emaitzak erdiesteko.

EI4.1 Aurpegiko eta gorputzeko forma anatomikoak aztertzea, eta fantasiazko makillajeak formatuaren ezaugarrietara, pisu bisualera eta abarrera egokitzea.

EI4.2 Bezeroa babesteko, prestatzeko eta kokatzeko neurriak deskribatzea.

EI4.3 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-bozetoak egiteko kasu praktikoetan, ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela:

- Motiboa hautatzea edo definitzea.
- Makillatuko den gunearen arabera hautatzea formatua.
- Bozetoak marrazketa-teknikekin egitea.
- Elementu guztiak definitzea: kolorea, lausotzeak, delineatzeak, materialen egoera eta abar.

EI4.4 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajea aplikatzeko erabiltzen diren kosmetikoak eta materialak deskribatzea.

EI4.5 Koloreak nahasketak eginez lortzeko kolorearen teoriaren zer printzipio bete behar diren azaltzea.

EI4.6 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajea aplikatzeko kasu praktiko batean:

- Lan egiteko egokiena den jarreran edo jarreretan kokatzea edo jartzea pertsona.
- Diseinua larruan kopiatzea, diseinuaren ingurua delineatuz eta barnealdean kolorea emanez. Kolorea argitzea, lausotzea, moteltzea: argia eta itzala aplikatzea.
- Makillajea teknika eta kosmetiko egokiekin finkatzea.
- Fantasiak eskatzen dituen osagarri eta gehigarriak teknika egokiekin aplikatzea.

A5: Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-prozesuen kalitatearen protokoloa ebaluatzea gogobetetze-maila ezagutzeko teknikak aplikatuz, eta desbideratzeak zuzentzeko neurriak proposatzea.

EI5.1 Prozesu horien kalitatea ebaluatzeko alderdi garrantzitsuak identifikatzea.

EI5.2 Laneko prozesuen eta lortutako emaitzen kalitatea ebaluatzeko irizpideak azaltzea.

EI5.3 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajeak ebaluatzeko kasu praktiko batean:

- Aurreikusitako emaitzeekin konparatuta izan diren desbideratzeak detektatzeko teknikak deskribatzea.
- Zer fasetan gertatu diren identifikatzea.
- Lortutako emaitzak lortu nahi ziren emaitzetara egokitzeko neurriak proposatzea.

## **Edukiak**

### **1. Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajea protokolizatzea.**

- Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillajearen eragina duten ezaugarri teknikoak.
- Protokoloak egiteko jarraibideak.
- Protokoloaren elementuak:
  - Bitarteko teknikoak.
  - Bitarteko materialak.
  - Teknikak.
  - Faseak.
  - Sekuentzia.
  - Denborak.
  - Aplikazio-irizpideak.
  - beste batzuk.
- Aurpegiko eta gorputzeko fantasiazko makillaje-estiloen protokolo normalizatuak.

### **2 Aurpegiaren eta gorputzaren azterketa morfologikoa.**

- Gorpuzkera.
- Gorputzaren morfologiaren azterketa.
- Aurpegiaren morfologiaren azterketa.
- Fitxa teknikoa prestatzea.

### **3 Fantasiazko makillajeak aplikatzeko bozetoen prestaketa.**

- Fantasiazko makillajeen sailkapena:

- Fauna.
- Flora.
- Libre sortutakoa.
- Kolorearen teoria.
- Bozetoak egiteko marrazketa-teknikak.
- Bozetoak egitea:
  - Motiboa.
  - Formatua.
  - Pisua.
  - Hedadura.
  - Erliebeak.
  - beste batzuk.
- Motiboak gunearen arabera hautatzea.

#### 4 Aurpegiko eta gorputzeko fantasiako makillaje-teknikak.

- Fantasiako makillajeak aplikatzeko kosmetikoak: sailkapenak eta ezaugarriak.
- Produktu itsasgarriak.
- Fantasiako makillajeetan gehien erabiltzen diren materialak eta osagarriak.
- Diseinuak kopiatzeko diseinuaren ingurua delineatzeko teknikak.
- Kolore-kosmetikoak aplikatzeko teknikak: nahasketak, lausotzeak, argi/iluna eta abar.
- Materialak eta osagarriak aplikatzeko teknikak.
- Aurpegiko eta gorputzeko fantasiako fauna, flora eta abar irudikatzeko makillajea aplikatzeko teknikak.
- Fantasiako makillajea aplikatzean arriskuak prebenitzeko profesionala babesteko neurriak.
  - Janzkera.
  - Lanerako gomendatutako jarrera-higienea.
- Fantasiako makillaje-prozesuetan bezeroa babesteko neurriak.
  - Janzkera.
  - Gomendatutako jarrera-higienea.

#### 5 Kalitatea bitartekoetako makillaje-prozesuetan.

- Kalitatea bitartekoetako makillaje-zerbitzuetan eta aurpegi nahiz gorputzeko fantasiako makillaje-zerbitzuetan.
- Bitartekoetako makillajearen eta fantasiako makillajearen kalitatea definitzen duten parametroak.
- Gogobetetze-maila neurtzeko teknikak.
- Bitartekoetarako makillatzean izandako desbideratzeak detektatzeko teknikak.
- Desbideratzeak zuzentzeko neurriak hartzea.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Makillaje integrala